# ekipo

2014 AZAROA | NOVIEMBRE nº 6 zk.




# Arrupenea zentroa, inauguratuta

# Arreta goiztiarreko zerbitzua eraldatzen

**Aspace Gipuzkoak urte asko daramatza lurraldeko familiei arreta goiztiarreko babesa eta aholkularitza eskaintzen. Orain, ordea, urrats bat haratago eman nahi du Elkarteak. Haurraren ingurunea lehenesten da honen autonomia eta bizi-kalitatea hobetu daitezen. Nola? Ohituretan eta ingurune naturaletan esku hartzen. Zertarako? Ohartzeko, aurrera egiteko, haurraren ikaskuntza aukerak areagotzeko…Eta guzti hori Aspaceko profesional talde baten gidaritza eta lidertzapean. Joan den urrian, Valentziako Unibertsitateko Marga Cañadas-ek –arreta goiztiarreko eraldaketa ereduan aditua- Goienetxen hitzaldi bat eskaini zieten Arreta Goiztiarreko familiei. Cañadasek eredu horren eraldaketaren gakoak azaltzen dizkigu.**



Marga Cañadas, Profesora de la Universidad de Valencia y especialista en transformación de Atención Temprana

**¿Qué tal fue la charla con las familias de Aspace?**
Para mí fue un placer compartir con ellos un espacio de reflexión sobre la atención temprana y la participación de la familia durante todo el proceso. Conozco desde hace tiempo al equipo de Atención Temprana de Aspace Gipuzkoa y realizan un trabajo de admirar. Son profesionales de los que yo he aprendido mucho y que viven su trabajo y amor por el trabajo bien hecho de una manera admirable.

**¿Qué temas ha tratado con ellos?**
Hemos realizado una charla con los padres con la idea de compartir y transmitirles que son las personas que más conocen e influyen en sus hijos y que para favorecer el desarrollo adecuado de los niños su papel es fundamental. Los profesionales estamos para apoyarles y favorecer que en las rutinas diarias puedan apoyar a sus hijos, sin hacerles terapeutas de sus hijos y considerando cualquier actividad como oportunidad de aprendizaje.

**A grandes rasgos, ¿en qué consiste la transformación de atención temprana?**
En entender que la atención de los profesionales no se limita a dos o tres sesiones semanales con un niño y dar pautas a la familia. La transformación supone pensar que los profesionales son apoyos que colaboran con la familia para que dentro de las rutinas del niño y en sus contextos naturales (como puede ser la casa o el colegio), se aprovechen muchas oportunidades de aprendizaje a la semana consiguiendo una mayor generalización y mantenimiento de los logros del niño.

**¿Cómo pueden abarcar la situación cuando desde la salud pública les derivan a Aspace porque su niño o niña tiene alguna deficiencia? ¿Cuáles son los pasos a dar?**
Los profesionales realizan una valoración de las capacidades del niño según su edad y junto a la familia identifican las actividades que dentro de sus rutinas resultan más dificultosas para el niño y la familia. A continuación, profesionales y familia determinan los objetivos a trabajar y las estrategias a utilizar para poder alcanzarlos.

**¿Cómo valora la labor que está haciendo Aspace Gipuzkoa en la mejora del servicio de atención temprana?**
Como comentaba antes, el equipo de Atención Temprana de la asociación está siendo pionero y modelo ya para otros centros en España porque están trabajando fuerte tanto en formación como en poner en práctica la transformación de los servicios.

## Testimonios

**Iakes Lopez, gurasoa**



"Gure semeak hiru urte ditu eta jaio zenetik ez du dagnosi zehatz bat, psikomotrizidadean atzerapen moduko bat duela esan ziguten Osakidetzan. Hondoa jota geunden. Aspacera jo genuen orduan, eta David Alonso medikuarekin elkartu ginenean argi izpi bat ikusi genuen. Hasieratik aholkuak eman dizkigute, eta haurraren gain lanean jarraitu behar dugula azaldu zigun, Elkartea eta gurasoak eskutik helduta. Asko lagundu digute arreta goiztiarreko profesionalek. Hasieran bakarrik aurkitzen ginen, babesik gabe. Aspacerekin elkarlanean egoerari buelta eman diogu, eta lagungarria izan zaigu beste familien kasuak eta gurea elkarekin partekatzea".

**Pilar Berrio, gurasoa**



"Bi urteko mutiltxo bat daukagu eta egia esan eman duen hobekuntza nabarmena izan da. Marga Cañadasek hitzaldian esandakoarekin oso identifikatuta sentitu naiz: askotan gurasook errudun sentitzen gara egoerari aurre egiten ez dakigulako, galduta aurkitzen garelako… Aspace Gipuzkoako arreta goiztiarreko zerbitzutik informazio anitz erraztu digute, eta elkarteak umeei eskainitako zerbitzua hobetzeko egiten ari den saiakera txalotzekoa da. Familiok babesa behar dugu, eta Aspaceko profesionalen laguntzari esker, guk ere deskantsatzeko, guretzat denbora hartzeko eta, hortaz, gauzak beste era batera ikusteko aukera izaten ari gara".

**Mikel Lafuente eta Itxaso Martin, Neuropediatras**



"Hemos recibido la invitación de Aspace Gipuzkoa para acudir a esta sesión informativa sobre la transformación del modelo de atención temprana. A los profesionales de Osakidetza nos viene bien ver más allá, ver cómo se trabaja en ese servicio; no debemos ceñirnos solo a dar un diagnóstico y derivar al niño o a la niña a la Asociación. Hay que tener en cuenta que para unos padres es muy difícil digerir que su hijo/a padecer una patología concreta, y es de vital importancia reducir el proceso burocrático y facilitarles el camino. Por ello intentamos trabajar de manera sincronizada y coordinada todos los profesionales de Osakidetza y Aspace Gipuzkoa, para ser entre todos un apoyo para las familias".







# Integrazio ardatz Luis Eceiza (Eskoriatzako) gela egonkorrean

**Tok tok. Gela egonkorreko atea jo dute. Goizeko hamaikak dira eta dantzarako ordua da. Atea ireki eta "noiz jaitsi behar duzue patiora?" galdegin du 3. mailako haur batek. "prestatu eta berehala goaz" erantzun dio Loreak, gela egonkorreko irakasleak. Urdin eta Naiara urduri jarri dira; badakite zer datorren orain: jolas ordua da eta denak elkarrekin euskararen egunerako dantza entseguak egiten ari dira. "Jarduera ezberdinak egiten ditugu gainontzeko gelekin eta patiora joaten garenean, gure bila etortzen dira gainontzeko haurrak. Librea da, naturala eta espontaneoa. Izan ere, badakite gure gelako atea beti zabalik dagoela".**

Garun-paralisia duten 8 eta 10 urte bitarteko zazpi ikasle ditu Eskoriatzako Luis Ezeiza herri ikastetxeko gela egonkorrak. Orain arte Aspacek Bergaran duen egoitzan kokatzen zen, baina irailetik Luis Ezeiza ikastetxeko gela bat gehiago da. "Lehen euren behar batzuk asetzen ziren baina ez guztiak. Sozializaziorako beharra adibidez ez zen eskola arrunt batean ase daitekeen bezala asetzen" azaldu dio EKIPO aldizkariari Lorea Ugarte irakasleak, "helburua da ume bakoitzaren beharrak asetzea, pertsonak osotasunean dauzkan beharrak, eta horietako bat da sozializazioa. Haur guztiek daukaten eskubidea da eskolan egotea eta beraien sozializatzeko eremu garrantzitsuenetarikoa, familiaz gain, eskola da. Gainera, elkar ezagutzeko aukera izatea ezinbestekoa da guztiok gaitasun ezberdinak ditugula ohartzeko".

Egokitzapen fasean daude gela egonkorreko ikasleak. "Irailean hasi ginen" azaldu digu Loreak; "oraingoz sozializaziorako erabiltzen ditugun espazioak dira patioa, jangela eta bazkalosteko denbora librea gelan, une honetan beste geletako haurrak gure gelara etorri daitezke". Ikastetxearen ordutegi bera egiten dute gela egonkorreko ikasleek ere, goizeko 9:00etatik 16:15ak arte. "Goizean iritsi eta gelan kokatzeko, ikaskideak agurtu eta norbere kutxara joaten da berokia kendu eta gurasoen koadernoan mezurik ba ote den begiratzera". Aspacek erabiltzen duen metodologiatako bat da errutinetan oinarritutako metodologia. Gutxi gorabehera, egunero antzeko urratsak egiten dira, ikasleen interesa eta parte-hartzea handiagoa izateko, hala beraiek ere aurreikusi dezakete jarraian zer datorren eta euren kolaborazioa handiagoa da.

"Aurrez ikasle bakoitzaren curriculumean zehaztutako helburuak betetzera bideratutako jarduerekin antolatzen dugu eguna. Batzuetan gimnasia edo gorputzaren ezagutza egiten dugu; beste batzuetan jarduera musikala. Azken finean, bakoitzak plangintza indibiduala du baina badaude komun dituzten helburuak eta horiek lortzeko jarduera ezberdinak egiten ditugu. Hala ere, jarduera berdin batean haur bakoitzak helburu ezberdinak eduki ditzake". Irakaslea, monitorea, logopeda eta fisioterapeuta dira gela egonkorreko profesionalak. Logopeda astean bitan egoten da gelan eta fisioterapeuta hirutan.

Hamarretan mokadu bat jan eta 11etarako patiora jaisten dira gainontzeko ikasleekin egotera. Eremu hori ikasketa prozesu bat da haurrentzat eta helburua da euren artean erlazionatzea. "Haurrak irakasleongana etortzen dira galdetzera: hau zergatik egiten du horrela? –dio Loreak- Eta gu (irakasleak) galdera horiei erantzuten saiatzen gara. Askotan gizartean dagoen arazoa da ez dakigula zer gertatzen zaien edo zergatik diren horrelakoak. Ez zaie galdera hauei behar bezala erantzuten. Horregatik, gure helburua da haurrei segurtasun bat ematea, beraiekin nola jokatu jakin dezaten; eta alderantziz ere bai. Gure ikasleen kasuan, zenbaiti zaratak molestatu egiten diete. Gainontzeko haurrek ulertu behar dute honek zer suposatzen duen eta horren arabera nola lagundu diezaioketen. Gehienetan, beraiek ikusten dute zein zailtasun dauden eta nola egokitu gaitezkeen zailtasun horiei erantzuna bilatzeko. Patioa horretarako erabiltzen dugu".

Patiotik jangelara joaten dira zuzenean bazkaltzera. Bazkaltzea ere ikaskuntza prozesu bat da eta behar duten arreta eman ahal izateko monitore bat gehiago izaten dute gela egonkorreko haurrek. Haur hezkuntzako ikasleekin ere partekatzen dute espazio hori. Bazkal ostean hortzak garbitu ondoren, denbora librea eta estimulaziorako edo deskantsurako ordua. Ordu horretan joaten dira beste ikasleak ere beraiekin jolastera. "Tarte hori aprobetxatzen dugu gainontzeko haurrek gure gela barruan zer egiten dugun eta erabiltzen ditugun materialak eta jolasak ezagutu ditzaten. Helburua izango litzateke urtarriletik aurrera arratsaldeko tarte horretan gela arruntetan sartzea".

Luis Ezeiza herri ikastetxeko gela egonkorra elkarlanaren adibide ezin hobea da. Garunparalisia duten haurren gurasoen, herri eskolaren eta Aspaceren arteko elkarlana ezinbestekoa izan da gela hau errealitate bilakatzeko."Garunparalisia duen haurrak bere osotasunean helburuak bete ahal izateko halako espazioen beharra du. Gainera, bi aldetatik daude helburuak, elkarrengandik ikasi baitezakegu. Hori da helburu nagusia: guztiok guztiongandik ikastea". Hitz hauekin amaitu du Lorea irakasleak EKIPO aldizkariarekin topaketa eta herri ikastetxeko abestia abesten eta dantzatzen zuten bitartean agurtu ditugu ikasleak: "Hazi eta hezi, ezberdinaz ikasi, herri eskolan bizi nahi dugu Eskoitzan!"



El aula estable que Aspace Gipuzkoa tiene en el Colegio Luis Ezeiza de Eskoriatza tiene como objetivo la integración y la normalización social, ofreciendo al alumna\o un entorno escolar lo más normalizado posible "el objetivo es satisfacer las necesidades de cada niño/a, las necesidades que una persona tiene en su integridad, y una de ellas es la socialización" destaca Lorea Ugarte, profesora del aula en Luis Ezeiza.

El aula estable es un recurso extraordinario que proporciona un contexto adecuado y el menos restrictivo posible para el desarrollo de personas con parálisis cerebral. "tener la oportunidad de conocernos es primordial para darnos cuenta de las distintas capacidades que tenemos unos y otros" aclara Lorea.

# Ongi etorri Arrupeneara!






**Urduritasuna nabaria zen Arrupenean. Jendea haranzka eta honanzka, denok, elkarlanean, guztiari azken ukituak ematen, gelak apaintzen, gonbidapenak Aspaceko familia osoari iritsi zaizkiela ziurtatzen… finean, etxea, egun handirako, dotore janzten. Emaitza? Arrupeneako zentroa posible egin duten erakundeetako ordezkarien txundipen arpegia eta inaugurazio ekitaldian airean zebilen zoriontasun goxo hori. Festa lehertu zen Irungo Arrupenea zentroaren inaugurazioan, eta jaiaren funtsezko zati izan ziren, beti bezala, gure erabiltzaileak, haien senitartekoak eta zentro berria egi bihurtzeko burubelarri lanean jardun duten profesionalak. Bejondeizuela!**

Arrupenea, el nuevo centro de Aspace Gipuzkoa en Irun, celebró el pasado mes de noviembre la fiesta de su inauguración oficial. Abierto desde el pasado mes de abril, este moderno y acogedor edificio, fue inaugurado de la mano de las instituciones que han colaborado activamente en su desarrollo y puesta en marcha. Así, el centro y el equipo Aspace Gipuzkoa, ataviados con sus sus mejores galas, recibieron la visita del Diputado General, Martín Garitano; el Alcalde de Irun, José Antonio Santano; Javier Dominguez, Director de la Once en Donostia, Carlos Ruiz, Director de la Obra Social de Kutxa y de Ander Rodriguez, Diputado de Politica Social del ente foral.

Profesionales y usuarios de Arrupenea, acompañados por familiares y amigos, participaron en la fiesta de inauguración. El Diputado General, el alcalde de Irun y la presidenta de Aspace Gipuzkoa Elisa Carmona fueron los encargados de cortar la cinta –nuestra usuaria Marivi fue quien portó y cedió las tijeras–. Tras el acto inaugural, la presidenta de Aspace Gipuzkoa Elisa Carmona agradeció "de todo corazón a todas las personas, instituciones y entidades que han hecho posible su apertura". "Hoy es un día de fiesta, en el que vemos hecho realidad un proyecto en el que hemos trabajado con ahínco desde hace más de 15 años. Los usuarios han participado en el diseño de su casa, lo que les va a permitir llevar una vida más independiente". Por su parte, el alcalde de Irun felicitó a usuarios, familias y profesionales de la asociación, y reiteró que las personas usuarias "tienen mucho que descubrir en su nueva vecindad. Tienen todo al alcance y nos alegra que puedan llevar una vida normalizada con el resto de irundarras". El Diputado General destacó la colaboración entre la Administración Pública y entidades sociales como Aspace Gipuzkoa, "que ha demostrado sobrada competencia".

### BESTELAKO OHARRAK

- Nabarmendu beharrekoa da Zentroko erabiltzaileek eraikinaren diseinuan izandako parte-hartzea.
- Ezaugarri nabarmengarria: Zentroaren kokapenak mota ezberdineko gizarte jarduerak egitea ahalbidetzen du (erosketak egin, kafe bat hartu, bizilagunekin erlazionatu, etab.)
- Jakin beharrekoa: Zentro berri hau martxan jarri da erakunde publikoen eta pribatuen arteko elkarlanari esker.
- Duela 15 urte baino gehiagotik nabarmentzen zen zerbitzu espezializatuen beharra Bidasoako eskualdean eta Irungo Udalak berak utzitako eremuan eraiki ahal izan da Arrupenea Zentroa.
- Irungo Udalak Aspace Gipuzkoari lurzorua uztea onartu eta sinatu zuenean hasi ziren eraikuntza lanak.
- Erakunde publikoen, pribatuen eta gizarte ekintzaren arteko sinergiari esker, gaur, 3 urteko lanaren ondoren, Arrupenea Zentro berria inauguratu da.

**"El Diputado General anunció la apertura de la tercera vivienda del centro Arrupenea en 2015"**

## ARRUPENEA bertatik bertara

**Eraikitako 2.941,95 metro koadro ditu zentroak,** 3 solairutan banatuta dago eta ondorengo zerbitzuak eskaintzen ditu:

- Sotoa: garajea, galdaren gela
- Beheko solairua: eguneko jardueren zerbitzua, erabilera anitzeko aretoa, etxebizitzetara sarrera, patioa, arreta goiztiarrerako eta heziketa zerbitzurako gunea
- Lehen solairua: hiru etxebizitza eta apartamentu bat

### Punta-puntako teknologia

Inauguratu berri den zentroa egokituta dago laguntza handia behar duten erabiltzaileei, bai dimentsioei dagokionez eta baita irisgarritasunari eta inguruaren kontrolari dagokionez ere. Erabiltzaileak eraikinera erraz sartzea ez da nahikoa; garrantzitsuena da autonomia ematen duten eta bizitzako eguneroko jardueretan mugimendua errazten duten mekanismoak daudela Zentroan. Esate baterako, sabaiko garabien bitartez, erabiltzailearen mugikortasuna, segurtasuna eta erosotasuna hobetzen dira.

### Finantzazioa

Inbertsioak eta ekipamenduak 4.607.130,12 euroko kostua izan du.

- Gipuzkoako Foru Aldundiak: 1.950.000,00 €
- Aspace Gipuzkoa: 1.870.950,12
- Kutxa Gizarte Ekintza: 725.000,00 €
- Once Fundazioa: 61.180,00 €

# Programa de Vida Independiente: las vidas de Nerea y Aitor

**El centro Arrupenea de Irún pone en marcha una experiencia pionera en la Asociación con un Apartamento de Vida Independiente para dos personas.**

"Ahora estamos viviendo como lo habíamos deseado, en pareja, como lo hacen todas las parejas de nuestra edad". Estas han sido las palabras de Nerea y Aitor cuando les hemos preguntado cómo están viviendo sus primeros días en el Apartamento de Vida Independiente del Centro Arrupenea en Irún. Este apartamento forma parte del Programa de Vida Independiente de Aspace Gipuzkoa y les permite a Aitor y Nerea hacer realidad su proyecto de vida, con sus dificultades, miedos, preocupaciones pero también con ilusiones, esperanzas y, como no, con nuevos sueños.

Actualmente, sólo existen otros dos Programas de Vida Independiente de perfil similar, que se están desarrollando en Madrid y Barcelona, ambos respaldados por sendas Oficinas de Vida Independiente.
La Vida Independiente tiene entre sus objetivos la promoción de la autonomía personal y la consecución de la plena ciudadanía.

Nerea y Aitor se han adherido al Movimiento de Vida Independiente con el objetivo de asumir el trabajo de gestión de todos los servicios recibidos y desarrollar su autonomía.

→

# Programa de Vida Independiente: las vidas de Nerea y Aitor

Ellos deciden cómo y con quien quieren vivir eligiendo para ello la asistencia personal que les ayude en los cuidados precisos para poder vivir su propia vida de la forma más autónoma posible: "Nuestras vidas han cambiado. Desde que estamos en este piso se nos han abierto más caminos en general. Ahora hacemos una vida como cualquier persona de nuestra edad, ya que nos tenemos que preocupar de todas las cosas de una casa, como por ejemplo, lavar la ropa, hacer la compra semanal, pensar lo que vamos a comer y prever las cosas que vamos necesitar".

Desde que viven en el apartamento de Arrupenea, Nerea y Aitor ejercen su autonomía independientemente: "ahora entramos y salimos cuando queremos, decidimos lo que queremos hacer, a qué hora queremos comer… También hemos ganado en independencia, ya que ahora yo (Nerea) no tengo que depender de una segunda persona para salir a la calle. Hasta ahora vivía en un segundo sin ascensor y tenía que venir mi primo Ander o mi madre". Los dos afirman que el hecho de vivir en el Apartamento de Vida Independiente en el centro de Irún, ha mejorado su calidad de vida: "yo (Aitor) me he quitado mucho tiempo en desplazamientos de donde vivía al centro, ya que pasaba mucho tiempo en autobuses, ahora sólo es bajar bien por el ascensor o por la rampa. Se nos ha otorgado más autonomía ya que todo lo mencionado anteriormente no lo hacíamos en nuestras casas, y lo hacían nuestras madres, ahora somos nosotros los que nos tenemos que preocupar de todas nuestras cosas"

En su día a día, Nerea y Aitor, van tomando sus propias decisiones pero para poder ponerlas en práctica tienen contratada una asistencia personal que les ayuda diariamente en los cuidados y tareas precisas. Ellos mismos gestionan todo lo relativo a esta asistencia personal: buscar a las personas; formarlas; organizar sus horarios, vacaciones y suplencias; darles de alta y de baja en la seguridad social; pagarles cada mes, etc. El eje de la vida independiente y del ejercicio efectivo de la autonomía personal, es decir de la igualdad plena, es una asistencia personal de calidad, suficiente y adaptada a las necesidades de cada persona; sin ella, no hay vida independiente ni tampoco hay derechos.

Con esta apuesta valiente y fascinante, Aspace Gipuzkoa desea que poco a poco este sueño que hoy es un hecho para Aitor y Nerea pueda convertirse en realidad para otros muchos.

**ANDER ZAPIAIN USANDIZAGA**
Jefe del Servicio de Atención y Acceso a los Servicios Sociales de la Diputación Foral de Gipuzkoa

- Proiektu berria da Irungo Arrupenea zentrokoa, ezaugarri berriekin. Benetan eta guztiz bizimodu independentea izateranzko ibilbidean dagoen tarteko esperientzia da eta momentu honetan Foru Dekretu bidez xedatzen ari garen bizimodurako prestakuntza da.
- Bizitza Independentearen Mugimendua proiektu erakargarria da hainbat pertsonentzat eta hobeto landu beharra dago; pertsonen beharrei egokitu behar zaie eskaintzen den laguntza. Programaren eskatzaileak oso argi izan behar du zertan datzan eta tinkotasunez heldu beharko dio, independente izatea oso aberasgarria bada ere, bere zailtasunak baititu.
- Aurrera begira helburua da aipatutako programa kalitatean hobetzea parte hartzaileen arrakasta ziurtatu asmoz eta hori lortuta eskaintza erabiltzaile potentzial gehiagori zabaltzea.







# El material deportivo adaptado llegará pronto gracias a la iniciativa **PintxoKoop**



El proyecto solidario Pintxokoop, consistente en la donación de un euro por cada pintxo consumido en los bares adheridos a la iniciativa en aras a ayudar a entidades sociales guipuzcoanas, ha recogido sus frutos y ha conseguido el propósito de su primera edición: recaudar fondos para comprar material deportivo adaptado para las personas usuarias de Aspace Gipuzkoa. Con el objetivo cumplido y un balance satisfactorio, los voluntarios responsables de la iniciativa Pintxokoop celebraron una fiesta a la que asistieron profesionales y usuarios de la asociación a modo de agradecimiento. Mila esker Pintxo koop!!!!

# Red de ciudadanía activa de ASPACE

## "La participación es vital para que los usuarios se sientan parte de la asociación"



**Elena de la Vega,**
Coordinadora de proyectos de Confederación Aspace

**Lourdes Montufo,**
Formadora de la Red de Ciudadanía Activa Aspace



**¿En qué contexto surgió el programa de Ciudadanía Activa?**
Surge de encuentros que se hicieron entre distintas entidades sociales que empezaban a reivindicar su papel activo, de querer decidir sobre su vida. En determinadas entidades se favoreció que pudiera ser así, una de ellas fue Aspace Gipuzkoa. Gracias a una financiación de la Unión Europea puso fondos para llevar adelante el proyecto. Los cursos de formación a los profesionales es el primer paso que se da, para que luego las y los profesionales formen a las y los usuarios en aras a fomentar su participación en la entidad, que ejerzan activamente su derecho a tomar decisiones en todas las áreas en su vida.

**Aspace Gipuzkoa se lleva muchos años basando su organización y funcionamiento en la participación activa de sus personas usuarias.**
Aspace Gipuzkoa es pionera en la participación de los usuarios en lo que respecta a la organización y modo de funcionar de la asociación y es referencia para otros 25 Aspaces del Estado. Queremos que todas las asociaciones partan de la participación activa de sus usuarios y usuarias a la hora de trabajar en el día a día.

**¿La red de ciudadanía activa propiciará el encuentro entre las diferentes sedes de Aspace repartidas por todo el Estado?**
Ese es nuestro objetivo. Va a salir un blog denominado Red Aspace en el que todas las entidades que están participando y el resto que todavía no lo está haciendo van a poder interactuar entre ellos, para que compartan documentos, experiencias y que sea una guía para funcionar de manera similar, cosa que no ocurre hoy en día.

# Golden Apple Quarter, Oscar Terol eta Hasier Hormazak ASPACE GIPUZKOA omenduko dute Super Amararen jaialdi solidarioan

**Donostiako Kursaal-ak SuperAmarak urtero antolatzen duen jaialdia hartuko du datorren hilaren 12an arratsaldeko 20:00etan. Aurten gure elkartea omendu nahi izan dute. Gabon-giroan murgiltzen hasteko parada bikaina inondik inora!**




SUPERAMARA organiza todos los años un festival solidario en fechas previas a la Navidad.
Esta edición el festival está dedicada a Aspace Gipuzkoa y los beneficios obtenidos serán para nuestra asociación. Sin duda, es una efeméride para todo el equipo –usuarios, familias y profesionales, amigos y voluntarios–, al tiempo que se nos brinda una gran oportunidad para difundir lo que hacemos y lo que somos a toda la sociedad guipuzcoana. El festival tendrá lugar el 12 de diciembre a las 20,00 en el Auditorio Kursaal de Donostia.
El acto estará lleno de sorpresas emotivas y de guiños a nuestra asociación, que desde su creación en 1971 ha trabajado de manera incesante para ofrecer la mejor calidad de vida y fomentar la autonomía de las personas con parálisis cerebral y/o alteración afín.
El pasado 19 de noviembre tuvo lugar la presentación del cartel del festival. ¿A qué esperas? ¡Compra tu entrada y disfruta de un espectáculo que, además de dibujar a los asistentes una sonrisa, contribuirá a mejorar la vida de nuestras personas usuarias.




## Compra tu entrada en las taquillas del KURSAAL o en la página web entradas.diariovasco.com por solo 10 o 15€.

Si lo prefieres ponte en contacto con tu centro Aspace.

## ¡LOS BENEFICIOS SE DESTINARAN A LA COMPRA DE UNA FURGONETA ADAPTADA¡

D.L. SS-898-2012 Paper birziklatuan egina Redacción, diseño y ejecución: eko.txt